

PSIKOMOTRIZITATEA

HEROI TXIKIAK (3-4 URTE)

 Haurrentzako jarduera

DESKRIPZIOA

3 eta 4 urte bitarteko haurrei zuzendutako jarduera fisikoa, jolasaren, esplorazioaren eta mugimenduaren bidez garapen psikomotorra ardatz duena.

Saioak zirkuitu, jolas sinboliko eta dinamika motorren bidez egituratzen dira, parte-hartzaileek beren gorputza ezagutzeko, koordinazioa hobetzeko eta ingurunearekin erlazionatzeko aukera izan dezaten. Giro seguru, afektibo eta estimulagarrian lan egiten da, non jolasa den ikasteko bide nagusia.

Helburua haurraren garapen orokorra bultzatzea da (motorra, kognitiboa eta soziala), bakoitzaren erritmoak errespetatuz eta autonomia, konfiantza eta mugimenduarekiko gozamena sustatuz.

HELBURUAK

- Oinarrizko mugimen-trebetasunak garatzea (lau hankatan ibiltzea, korrika egitea, salto egitea, biratzea, etab.)
- Koordinazio orokorra eta oreka hobetzea.
- Norberaren gorputza ezagutzen eta kontrolatzen laguntzea.
- Pertzepzio espaziala eta orientazioa estimulatzea.
- Jolasaren bidez, berdinekiko elkarreragina sustatzea.
- Jarduera fisikoari loturiko esperientzia positiboak izatea.

GOMENDIOAK

- Askatasunez mugitzea ahalbidetzen duen arropa eroso erabiltzea.
- Ur botila ekartzea.
- Haur bakoitzaren banako erritmoak errespetatzea.
- Erregulartasunez joatea ikaskuntzak finkatzeko.
- Partaideen arteko alderaketak sahiestea.
- Teknikariei berariazko edozein beharren berri ematea

 4. jarduera gela (Kiroldegian)

 Talde bakarra:

- Ostiraletan 17:00etatik 17:45etara.

 2026/10/01etik 2027/05/31era



EDUKIAK

Oinarrizko mugikortasuna



Koordinazioa



Oreka



Espazio / Gorputz pertzepzioa



Erritmo / Gorputz adierazpena



Jolasa / Sozializazioa



JARDUERA-PROFILA

Intentsitatea



Zailtasuna



Arreta maila



Jardueren aniztasuna



Motibazio-osagaia

